

TOKIKOM

2013ko urria | 130. zenbakia

aitzor!

txorierriko aldizkaria



Gailur mendi taldea

Tontorrerantz ostera be

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT E MAKUME BASERRITARRAK ZAMUDIOKO JAIAK



IZARREN DISTIRA

IZENA EMAN, ETORRI KASTINERA ETA GALAZ GOZATU!

IZENA EMATEKO

www.izarrendistira.com
aintzane@kulturkabia.com

663 083 736
Txorierriko Izarren Distira 

DATA GARRANTZITSUAK

KASTINAK
Abenduaren 4an Zamudion
Abenduaren 5ean Derion

GALA
Abenduaren 14an
Sondikako Kultur Etxean

1000 EUROKO BONO-SARIA TALDE IRABAZLEARENTZAT!

FOTOKAZETARITZA TAILERRA

Zatoz Fotokazetaritza tailerrera eta tablet bat irabazteko aukera izango duzu!



Bizkaia Foru Aldundia
Deputación Foral de Bizkaia



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Toti Mtz. de Lezea, Izarne Agirre, Gaizka Peñafiel, Mari Carmen Noya, Aner Mentxaka, Oihane Goienetxe, Xabier Diaz, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



12 "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketa



14 Emakume baserritarrak



22 Zamudioko jaiak

-  4 Eritxia
-  5 Gutunak
-  6 Laburrak eta albistekak
-  12 "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketa
-  14 Emakume baserritarrak
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Gailur mendi taldea
-  22 Zamudioko jaiak
-  26 "Eman giltza" kanpaina
-  28 Puntuan jarri zure autoa
-  29 Zorionak!
-  30 Berbalagunen txokoa
-  32 Etxegabetzeak
-  34 Teknologia
-  35 Aikorrizketan... Kantinplora eta ezkila
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaiek eta apalategiak
Sabaierregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alerza Ibeia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

Garai txarrak, noizbait hobetuko direnak, beharbada

U ne hauetan, herri paganoa (pagatetik, jakina) harri eta zur dago ikusirik nolako nabarmenkeriaz ari diren ustelkeria, diru-xahutzea, nagusikeria, abusua eta praxi txarrak zabalitzen maila ekonomikoan, politikoan eta legezkoan, inoiz lehenago ikusi ez den modu batean. Baina, egiaz, betiko kontua da. Orain, hedabideei esker, badakigu zer den lehen ostenduta zegoen hura, edota gertatu eta handik denbora asko arte jakiten ez genuena. Tribu nomadak sedentario bilakatu zirenetik pairatu ditu gizarteak halako izurriak; hau da, jabetza indibiduala asmatu, eta jakin zenetik zenbat eta ondasun gehiago eskuratu handiagoa dela boterea.

Diru-gosea, norberaren mesederako aberastasunak eta boterea eskuratzeko grina, konstante bat da gizateriaren historian, maila handietan nahiz txikietan. Diru-goseak eragiten ditu gerrak: inork ez du lanik hartzen basamortua konkis-

tatzeko. Diru-goseak bultzatzen du desleialkeriara, eroskeriara, gezurretara, manipulaziora. Gizakiok diru-goseak garaitatez, baina gehien-gehienok ez daukagu halako eskrupulu-faltarik, gutxiengo bat bere kideei modu lotsagabea eta zigorgabea lapurtzera bultzatzen duenaren modukorik. Orokorrean, gure lorpen bakoitza, guztion ongizatea handitzen eta justizia eta zuzentasuna zabalitzen dituen lorpen bakoitza, hainbat eta hainbat neke eta negarren fruitua da. Botereak ez du ezer oparitzen, ez du inoiz oparitu. Are gehiago, edozein zirrikitu baliatzen du herria gehiago gabetzeko, nahiz eta herri hori den bera mantentzen duena, lan egiten eta ordaintzen duena, gabezia-urteak jasaten eta oparotasun-urteen etorrerarekin ia onuririk ateratzen ez duena.

Izan gaitzen baikorrak, hala ere. Gerrak, gosetea eta zapalkuntza jasan ziztuzten gure aitita-amamek ez hain as-



TOTI MTNEZ. DE LEZEA
(Idazlea)

paldi. Haien garaietan ez zegoen Gizarte Segurantzarik, ez erretiro, ez osasun eta ez hezkuntza publikorik. Egon ere, urik ere ez zegoen txorrotetan. Baina atera ziren, eta hemen gaude gu hori frogatzeko. Gehiago gara, eta berriro alda ditzakegu gauzak. Exiji dezakegu alda ditzatela legeak, epai ditzatela hondamendien arduradunak, derrigortu ditzatela ostutakoa itzultzera, eta berrezar ditzatela lorturiko eskubideak. Horretarako, ordea, denok egon beharko genuke ados, eta, ai, ez dakit zer den zailagoa.

Asmo txarrak susmo txarra dakar



IZARNE AGIRRE
(Irakaslea)

Z ilegitasun osoz eta legearen izenean etorri ziren eta eraman zituzten. Hamazortzi izan ziren. Giza eskubideen alde, herritik herrira, lanean ibili diren beste hainbatekin batera, 18 langile. Ai barkatu! Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko mugimenduko kide ziren. Hortxe dago delitua! Nola ez lehenago konturatu! Giza eskubideen alde lan egin daiteke, baina terrorismo delitua omen da bertoko preso eta iheslarien defentsan aritzea. Ez dute ezta entzun ere egin nahi hortaz, isildu eta isilarazi! Nola

ba! Nola isildu milaka lagun, familia, herrikide? Nola?

Zelan ez naiz lehenago konturatu! Nik uste nuen Madrilan, gaitetik kendu nahi gintuztela eta horrela geuretzat ere bakea. Baina bai zera! Asmo txarrak susmo txarra dakar. Beste ate bat ireki nahi zuten, beste makroepaiketa bat, zigorrak, jendea mindu, erre, nekarazi... 18 lagun atxilotu eta askatu! Zer ote dago horren atzetik?

Trumoi eta ekaitz izugarria ibili da joan diren asteotan; hala ere, elkartasun tantek busti zuten Bilbo, milaka tanta, itsaso zabala. Iraun dezala, bada, indar horrek, zoritxarrez, oraindik beharko da eta!

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean) 48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

astikenenmotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikorl-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Lezamako semaforoak, zertarako?

Badira urte batzuk Txorierriko korridorea ireki zela. Bertoko herrien bizikaltatea asko hobetu da eta gaur egun ezin izango genuke jasan korridoretik pasatzen diren automobil guztiak errepide nagusitik igarotzea. Baina herritar

asko lehengo bidetik joaten gara, herriko toki askotara heltzeko, eta orain uler-tzen ez dudana Lezaman dauden hiru semaforoak dira. Zein helburu duten. Herritik astiro pasatzearen alde nago eta, nire ustez, hori oinezkoentzako gai-

neko pasabideak jarritz lortzen da. Semaforoak bidegurutzetan txandaka pasatzen uzteko asmatu ziren, baina Lezaman ez dago txandakako biderik. Hiru semaforo baino ez daude eta guztiak oinezko pasabideetan ipini dituzte. Gainera, berde oso denbora laburrean daude eta, batean ez bada, bestean gelditu behar da.

Hain zaila da, Zamudion bezala, semafoetan botoi bat ipintzea eta, errepidea gurutzatu behar duenean, oinezkoak hura sakatu, autoak geldidatezen? Ba niri, behintzat, lelo-aurpegia geratzen zait, semaforoa gorri jartzten denean eta autoa gelditu behar dudanean. Ezertarako, gehietan ez duela inork errepidea gurutzatzen. Eta horrela egunez eta gauez, urteko egun eta ordu guztietan.

Udaletxean eta Foru Aldundian jende azkar asko omen dago. Baten batek azaldu ahal digu zein helburu duten Lezamako semafoerok? Handik igarotzen garen herriko eta erbesteko auto-gidariak izorratzea bada, benetan lortzen dute.

Jabier Lekerika



Ipuin Lehiaketa

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Txorierriko 16. Ipuin Lehiaketa jarri du martxan. Lanak Txorierriko liburutegietan edota Mankomunitatean bertan aurkeztu ahal dira azaroaren 29a baino lehen. Lehiaketak bost kategoria ditu: A kategoria, 7 urtera arte; B kategoria, 8-9 urte; C kategoria, 10-11 urte; D kategoria, 12-15 urte; eta E kategoria, 16 urtetik gorakoak. Lanak euskaraz idatzi behar dira eta gaia libre da. Luzerari dagokionez, ipuinek ezin izango dute lau orrialde baino gehiago eduki, eta parte-hartzaile bakoitzak lana bakarra aurkezteko aukera izango du. Epai-mahaikideek besteak beste imajinazioa, sormena eta aurkezpena izango dituzte kontuan.

“Mikel Zarate” sariaren azken lana kaleratu da

Irati Bediagaren *Beldarren hegaldia* ipuinak “Mikel Zarate” haur literatura saria irabazi duen azken lana da. Hautzaroko beldurrak eta konplexuak landu ditu lan horretan, umorea eta sentiberatasuna erabilita. Hamar urtetik gorakoei zuzendutako liburua da eta Elkar argitaletxeak duela gutxi argitaratu du. Irati Bediaga Galda-kaon jaio zen 1990. urtean eta *Beldarren hegaldia* bere lehendabiziko liburua da. Magisteritza ikasi zuen Iratik, eta Hezkuntzaren psikologiako masterra egiten dabil.

Maratoi-erdia, Loiumendi martxan



Loiumendi, Loiuuko mendi martxa, hirugarren aldiz antolatu da azaroaren 10erako. Ibilbide bi prestatuko dira: bata 15 kilometro inguru edukiko ditu eta helduei egongo da zuzenduta; eta besteak bederatzik kilometro edukiko ditu eta umeei egongo da zuzenduta. Gainera, nobedade bat ere egongo da, aurtan lehenengo aldiz egingo delako mendi maratoi-erdi bat. Korrikalariek 21 kilometro egingo dituzte Loiuuko mendietatik zehar. Nagusientzako mendi martxa goizeko

9:30ean hasiko da; maratoi-erdia, goizeko 10:00etan; eta umeentzako mendi martxa, goizeko 10:30ean.

Izena ematea doanekoa izango da, eta goizeko 8:30etik aurrera egin ahal izango da Abadetxe kalean. Bertan izango dira irteera eta helmuga. Parte-hartzaileek ibilbide hau egin beharko dute: Loiu-Lauro-Unbe-Loiu. Ibilbidearen erdian postu bat ipiniko da janaria eta edariarekin. Probaren ostean, txitxi-burruntzia eskainiko da eta opariak zozketatuko dira. Mendi maratoi-erdiari dagokionez, sari hauek emango dira: 200 euro eta txapela, irabazleari; 150 euro, bigarrena gelditzen denari; eta 100 euro, hirugarrenari. Horrezaz gainera, lehenengoa gelditzen den loiutarrak 100 euro eta txapela jasoko ditu saritzat; eta 50 euro, bigarrena gelditzen den loiutarrak.

luz, 500 lagun inguruk hartu zuten parte Loiumendi martxan. Aurtan, maratoi-erdia ere egingo denez, parte-hartzaile gehiago egotea espero dute antolatzaileek. Gainera, aurreratu duten moduan, aurtengo proba ondo irtetzen bada, baliteke datorren urteari begira mendiko bizikletak ere haren barruan sartzea. Loiuuko mendi martxa Udalak antolatzen duen arren, ezinbestekotzat jo dute antolatze-lanetan ibiliko diren 40 herritarren laguntza. “Beren laguntza barik ezin izango genuke hau guztia martxan jarri. Eskerrak eman behar dizkiegu”.



**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

URÉJOLA
JATETXEA

Aretxalde, 5
48196 LEZAMA
Tel: 94 455 64 83
Faxa: 94 455 50 94
www.urrejola.es
info@urrejola.es

**Ezkontzak
Enpresa-bazkariak
Menu bereziak**



**BASALBEITIKO
TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Bazkari Txakolina

Gaitozte 6/205, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

GOXO-GOXO LOIUTZON

Aretxaldeko zabalik
Ogite egunero
Pestakak aukeratzeko

Garsiolla, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
gogogoxoloiutzon@hotmail.com



Luchando contra lo desconocido dokumentala

Azaroaren 16an, *Luchando contra lo desconocido* dokumentala aurrestreinatuko da Barakaldoko Paules ikastetxean. Film horretan Garikoitzen historia batu da. Garikoitz Larrabetzuko umea da eta ezin du elikagairik hartu, elikagaiek eragin suntsiztaileak dituztelako bere organismoan. Hau da, erabateko elikagai-intolerantzia du. Ana Palou, Lucía Pascual, Isabel Grábalos eta Angélica Fontes de Albornoz Nafarroako Unibertsitateko ikus-entzunezko ikasleak dira, eta Garikoitzen eta bere fa-

miliaren egunerokoa jaso dute dokumentalean.

Lana arratsaldeko 6:30etan izango da ikastetxearen areto nagusian. Ekitaldia Iratxe Celis kazetariak aurkeztuko du, eta Barakaldoko Orfeoia ere hartuko du parte. Sarrerek lau euro balioko dute eta Anguleri Larrabetzuko kultur etxean ipiniko dira salgai. Gainera, ekitaldira joan ezin duenak 0 ilaran eserleku hartzeko aukera edukiko du. Dohaintza kontu korrante hauetariko baten sartu ahalko du: 2095 0046 30 9112034192 (BBK) eta 2100 6471 78 2100026441 (La Caixa). Informazio gehiagorako: Facebook eta garmitxa@gmail.com.



Kultura-ekitaldiak, Tximintx elkartearen eskutik

Tximintx Derioko euskara elkarteak ekitaldi-sorta zabala antolatu du datorren hilera. Hala, "Gartxot versus Asisko Urmeneta" ekitaldia aurkeztuko dute azaroaren 6an. Bertan, Asiskok *Gartxot* filmaren inguruko zehetasunak eta pasadizoak azalduko ditu. Hitzordua arratsaldeko 7etan ipini dute Kultur Birikan. Bestalde, Andoni Egaña bertsolariak "Zortziko zabala" hitzaldia eskainiko du azaroaren 14an, arratsaldeko 7etan, Kultur Etxean.

Azkenik, Tximintxikoek txarriboda-bazkaria antolatu dute azaroaren 16rako. Hamabi urtetik beherakoek 10 euro ordaindu beharko dute, 15 euro elkartearen bazkideek eta berbalagunek, eta 18 euro gainontzekoek. Lekua azaroaren 13a baino lehen erreserbatu behar da Txepetxa AEKn, Aldekone tabernan edo Trippy tabernan. Era berean, 688 845 186 telefono zenbakira dei daiteke, edo mezu bat agindu tximintx@gmail.com helbide elektronikora. Txarriboda-bazkarian Gorka Ostolaza eta Arrate Illaro bertsolariak arituko dira bat-batean.

Informazio gehiagorako:
tximintx@gmail.com
blogari.net/tximintx
aikor.com/txokoak.

AM
FEDERAZION 9 TRADUCCIONES

- INGURUEN ESKOLA
- MAMA GAZTAK
- AZTERKETA OFIZIALEK
- EGITENKO PNEUMATIKAZIA
- ONE-TO-ONE ESKOLA
- PRESTAKUNTZA ENPRESETAN
- ERROKAK KANPUNGO KLASEAK
- TZULPEN ZERBITZUA

www.am-formacion.com info@am-formacion.com

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 89

Erremerterri 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIA PRIMITIBOA LOTERIEN ERRESERBAK
1-X-2
SARITZARRA ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
EUROMILIOIAK TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (HEZKALA) • TELEFONUA/FAX: 94 455 64 87

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

- Menu bereziak arduraz hartzen
- Itxura orrasenteko platerak
- Itxura arduraz hartzen
- Eguneko menua eta karta
- Jasartzeak eta eskontzak
- Jarritki zabalek

B.º Garaioitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

LEJARRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apoiño zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien hazketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88

Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Garaioitza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (HEZKALA)

Genero-indarkeria ezabatuz

Azaroaren 25ean, Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Eguna izango da eta data horren inguruan hainbat ekitaldi egingo dira gure bailaran. Urriko alea itxi orduko, Derion eta Zamudion antolatutako diren ekitaldien berri eduki dugu.

Garbiñe Etxebarria psikologoak hitzaldi bat eskainiko du azaroaren 19an, 17:00etan, Derioko Kultur Birikan. Bertan, adinaren arabera genero-indarkeriaren motak aztertuko ditu. Azaroaren 23an, autodefentsa ikastaroa egingo da, 09:30etik 14:00etara, kiroldegian. Izena ematea azaroaren 19ra arte egin daiteke Kultur Birikan edo Udaletxean. Azkenik, azaroaren 24an, manifestazio bat egongo da genero-indarkeriaren aurka. Manifestazioa 12:45ean aterako da

San Isidro elizatik eta Udaletxean amaituko da. Han manifestu bat irakurriko da. Ekitaldiak Sutondoan elkarreak eta Udalak antolatu dituzte.

Bestalde, azaroaren 25ean elkarretaratze bi egingo dituzte Zamudioko Sabino Arana plazan. Bata eguerdiko 12etan izango da; eta bestea, arratsaldeko 7etan.



Herriko tabernen aurkako epaiketa

Urriaren 17an hasiera eman zioten herriko tabernen aurkako epaiketari. Auzi horren haritik HB, EH eta Batasuneko 36 lagun epaituko dituzte, eta 110 herriko taberna. Horien artean Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko herriko tabernak daude. Epaietara Karlos Arranz azalduko da Derioko herriko tabernaren erantzule zibil moduan; Karlos Martinez de Morentin, Zamudioko herriko tabernaren erantzule zibil moduan; Jabi Agirre, Lezamako herriko tabernaren erantzule zibil moduan; eta Aitor Aiarza, Larrabetzuko herriko tabernaren erantzule zibil moduan. Herriko tabernei ETA erakundea finantzatzea leporatzen diete, eta Herri Batasuneko zinegotziei ere dirua ematea.

Epaietaren lehenengo egunean aurretiazko arazoak aztertu ziren. Jabi Agirrek esan digun bezala, epaietak luze joko duen arren eta zer gertatuko den jakiterik ez badago ere, aurreko epaietak bezain gogorra izango ez den inpresioa atera zuen lehenengo saiotik. Hala, esate baterako, abokatuak herriko tabernen ordezkariak epaietaren hurrengo 10 saioetara joan behar ez izateko eskaria egin zuen eta epaileak onartu egin zuen.

Txorierriko herriko tabernen ordezkariak kultur arloan bertan egiten den lana azpimarratu dute eta, hortaz, urteetan elkarre horietan antolatu diren ekitaldiak: erakusketak, hitzaldiak, irteerak, bertso-



saioak eta azokak, batzuk aipatzearen. "Lezamako herriko taberna martxan jartzeko kreditu bat eskatu behar izan genuen orain dela 18 urte, eta oraindik ez dugu garbitu", gehitu du Agirrek. "Beraz, ipinitako dirua elkarre aurrera ateratzeko izan da, eta ez inor aberasteko, edo erakunde bat finantzatzeko".

Bestalde, aipatu beharra dago Segi erakundeko kidea izatea leporatzen dieten 40 gazteen aurkako epaiketa ere urrian hasi dela. Inputatuen artean, Haritz Petralanda Zamudioko gaztea dago.

ziurtagiaren elkarre

Bai Euskarari Ziurtagiria,
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak

bai
euskarari

baiuskarari.org

f /baieuskarariziurtagiria
t @baieuskarari
w www.baiaarean.org

elekma

URRATZUEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKIA

leherengo markak • Pizgarri onak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tokari etorbidea, 25-3 N • 48180 Lodu
T: 944 539 232
www.elekma.es

XURREGOITI
JATETXEA

Laurorota etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaja
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteaurregoiti.com

GURE SUSTRAIAK.-

Urriaren azoka batzuk izan ditugu Txorierrin. Lezaman, esate baterako, V. Nekazaritza Azoka antolatu zuten urriaren 6an; Sondikan, Enologia Eguna urriaren 13an; eta Loiu, XXI. Gastronomía eta Eskulangintza Azoka urriaren 20an. Eguraldi paregabea egon zen azoka guztietan eta gure baserrietan ekoizten diren produktuez (ardo, barazkiak, ogia...) eta geure artisauen lanez gozatzeko aukera izan genuen.



2.000 lagun, Bizikletaren Egunean

Euskadi Txirrindularitza Iraskundeak Bizikletaren Eguna antolatu zuen hamai-kagarren aldiz, Derion, urriaren 20an. Ekitaldi horren bidez, iraskundeak amaiera eman dio 2013ko denboraldiari. Oso urte gogorra izan da Fundaziorako, talde profesionala desagertu behar izan delako. Jaialdian 2.000 lagun bildu ziren: Fundazioaren kideak, laguntzaileak eta hainbat kide, Euskadi talde kontinentalekoak, Euskadi Txirrindularitza Iraskundearen 23 urtez azpikoen Naturgas Energia taldeko-



ak eta Naturgas-Energía-Txorierriko BTT Eskolakoak. Agintari eta politikariak ere izan ziren bertan.

Goizeko 11etan, 1.000 neska-mutiek lau kilometroko ibilbidea egin zuten Derio eta Teknologia Elkartegitik. Ondoren, Euskadi Txirrindularitza Iraskundeak omenaldia egin zien gaixotasun arraroak dituzten umeen alde lan egiten duten hiru elkarteri: Gure Señeak, Garmitxa eta Koroideremiak Eragindakoen elkartea. Gainera, egun osoan zehar tapoiak bildu ziren Garmitxa elkarterari emateko. Gazteentzako puzgarriak eta jolasak ere jarri ziren.

Pelukeria Estetika
94 455 81 44
Anguleri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia

NEKAZARITZA AZOKA
FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - beheko | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Miguel Angel Lekue garratofarria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

Jafetxea SIROCCO
Erribera, 9 beheko
Larrabetzu
48195
ASTEBURUTAN
Kortak
Plater induskarik
Ezkerreko menuak
Bakarrak / Alarik, ekarria

SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Esperientzia pilotu bat, Larrabetzun hondakin organikoak kudeatzeko

Ramon Plana hondakinen tratamendu biologikoan aditua da, eta joan den hilabetean hitzaldi bat eskaini zuen Larrabetzun, Austriako landa-eremuetan hondakin organikoak biltzeko erabiltzen duten ereduaz azaltzeko. Eredu hori horrela labur daiteke: Udalak eta nekazariek akordio bat egiten dute, hondakin organikoak kudeatzeko. Herritarrek hondakin organikoak bereizten dituzte, eta nekazariek horiek bildu eta beren lurretara errotzen dituzte, nor bere erabilerarako edo merkaturatzeko. Udalak bilketa- eta garraio-gastuak ordaintzen dizkie baserritarrei.

Azaldutakoaren arabera, sistema hau 90eko hamarkadan ezarri zen Austriako eta urteko 1.300.000 tona hondakin organiko tratatzen dira bertan. Hain arrakastatsua izan da ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren ikuspuntutik, ezen Europako Batasunak beste leku batzuetara zabaldu baitu, SCOW proiektuaren bidez.

Larrabetzun Austriako eredu hartu dute oinarritzat eta esperientzia pilotu bat jarri dute martxan, bertako nekazaritza bultzatzeko eta hondakin organikoaren kudeaketa hobetzeko. Esperientzia pilotuare-

kin 30 familiak, janari-denda batek eta jatetxe batek egin dute bat, eta urtean zazpi edo zortzi tona hondakin organiko biltzea espero da. Egitasmoa Gurrupide

elkarteak eta Larrabetzuko Udalak sustatu dute. Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza eduki dute horretarako.

Onurak baino ez

Proiektuaren bultzatzaileen esanetan, eredu hau Larrabetzun ezartzeak onurak ekarriko dizkie baserritarrei, ingurumenari eta udalerritari. Baserritarrei, diru-sarrera osagarria lortuko dutelako, konpost egiteko materia organiko berezitua eskuratuko dutelako, eta ongarritan aurreztuko dutelako. Ingurumenari dagokionez, garraioak sortzen duen kutsadura gutxituko da, baita erretzearen ondorioz sortzen den kutsadura ere. Lurrari elikagaiak itzuli eta materia organikoaren zikloa itxi egingo da. Gainera, lortutako konpostari esker, saihestuko da ongarririk erabiltzea. Azkenik, udalerrirako ere izango da onuragarria, hango jarduera ekonomikoa indartuko delako, eta sistemaren sinpletasunagatik, Udalak dirua aurreztuko duelako.

Egitasmoak interesa sortu du herritarren artean eta esperientzia pilotua ondo irteenez gero, baliteke datorren urtean hura 60 familiari zabaltea.




**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papelgintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Consulting
Sondika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746

Mitxel, 6 berrera
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

HARATEGIA • URDAITEGIA

VICTOR
ARTISAN-ELABORAZIOA

Okala ekoizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txostorra, solomak...

Plater aurrekoizina

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17


Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./FAXa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net
corregadik gerta
AHOLKUALARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKUALDATZEAK
SALEKONKETA
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA



Bihotza egurrean

Gizakiok lau haizetara zabaltzen dugu maiteminduta gaudela. Azken bolada honetan, modan ipini da bikoteek zubietan giltzarrapak ipintzea euren maitasunaren ikur bezala. Baina, maitasuna adierazteko, beti margotu izan dugu bihotz bat horma edo enbor batean. Zuhaitz hau ere maiteminduta omen dago.

Argazkia: Gaizka Peñafiel



SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzoruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com

Tel. 94 424 38 34



ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Unbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

**MARMOLGINTZA
GOYO**

SURALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAN

Ugaldeguren 1 ind. 10-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63



Euskaraz, metroz metro



a: Oihane Goienetxe eta Aner Mentxaka

Urriaren 12an, 150 korrikalari inguru batu ziren Derion, "Euskaraz bizi nahi dut" kanpainaren haritik antolatutako lasterketaren parte hartzeko. Egitasmoa Kontseiluak sustatu du, eta lasterketak irailean eta urrian zehar egin dira Euskal Herriko hainbat herritan. Txorierrin, bertoko euskara elkarteek eta Txepetxa AEK euskaltegiak antolatu zuten lasterketa.

Korrikalariak, haietako asko gurasoak eta beren seme-alabak izan zirenak, goizeko 11:00etan eduki zuten hitzordua, Derioko frontoian. Hiru ibilbide prestatu ziren: bat, umeei zuzenduta eta 500 metrokoa; beste bat, hiru kilometrokoa; eta azkena, bost kilometrokoa. Antolatzaileen esanetan, oso ekintza polita eta bizia irten zen. Hala, lasterketaren ostean



hamaiketakoa eskaini zen, eta, besteak beste, taloa eta txorizoa, piper frijituak eta Lezamako txakolina eta sagardoa dastatzeko aukera egon zen. Ura Patxi Koop.-k ipini zuen doan. Goiza Bertokok eta bertsolariek girotu zuten eta opariak zozketatu ziren parte-hartzaileen artean.

"Lasterketan Txorierriko herri guztietako lagunek hartu dute parte, eta oso balorazio positiboa egin dugu", esan digute antolatzaileek. "Lehenengo eta behin, kontuan hartu behar dugu, Korrikaz aparte, jendeak ez duela halako lasterketetan ibiltzeko ohiturarik. Beraz, ekintza hau antolatzen dugun lehenengo aldia izanik, haren inguruan 150 lagun batzea oso emaitza polita dela uste dugu". Lasterketa datorren urtean ere antolatzeko asmoa dute. "Denbora gehiago edukiko dugu hura hobeto prestatu eta ezagutza emateko. Ziur gaude jende gehiago animatuko dela bertan parte hartzera!".

Bestalde, lasterketa bat antolatzeko lan handia dakarren gauza da, detaile asko zaindu behar direlako: zirkulazioa kontrolatu behar da, bidegurutzetan eta errotondetan jendea egon behar da, egoera arriskutsuak saihesteko... "Antolatze-lanetan 25 lagun egon dira eta alde honetatik ere oso erantzun ona egon dela pentsatzen dugu. Ibilbideez aparte, izena ematearekin, hamaiketakoarekin, opariekin... ere lagundu dute. Eskertzekoa da beren lana". Derioko Udalari ere eskertu diote emandako laguntza. "Izan ere, lasterketa egiteko beharrezkoa den azpiegitura guztia utzi digute. Frontoiko komunak eta duxtak ere erabili ahal izan ditugu".





www.bbkk.es





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13



ANTZERKIA
TERAPIAS
VAIVEN y LA PAVANA
Azaroak 30, 20:00
Prezioa: 10 €

ZIPI Y ZAPE Y EL CLUB DE LA CANICA
92' AG EUSKARAZ (2D)
Azaroak 2, 18:00
Azaroak 3, 17:00

LAS BRUJAS DE ZUGARRAMURDI
119' EG-16 (2D)
Azaroak 2, 20:30
Azaroak 3, 19:30

JUSTIN Y LA ESPADA DEL VALOR
93' AG (2D)
Azaroak 9, 18:00
Azaroak 10, 17:00

UNA CUESTIÓN DE TIEMPO
123' AG (2D)
Azaroak 9, 20:30
Azaroak 10, 19:30

TURBO
96' AG (3D)
Azaroak 16, 18:00
Azaroak 17, 17:00

THOR: EL MUNDO OSCURO
104' EG-13 (3D)
Azaroak 16, 20:30
Azaroak 17, 19:30

DORAEMON-NOBITA HOLMES
104' AG EUSKARAZ (2D)
Azaroak 23, 17:00
Azaroak 24, 17:00

LA BUENA ESTRELLA
98' EG-13 (2D) PREZIOA: 2€
Azaroak 23, 19:30
Ostean, zineforuma, doan

ZINEA



*oharra: produktorearen behar-izamen arabera, programazioak aldatuak izan daitezke

2D: 4 € 3D: 6 €

a: Derioko Udala

Urriaren 15a Landa Eremuko Emakumeen Nazinoarteko Eguna izan zan. Ekimenak 1995. urteko Pekingo Konferentzian dau jatorria, eta haren helburua da mundu osoko landa eremuko emakume guztiak euren eskubideak eta bizi-kalitatea hobea aldarrikatzea eta bardintasuna hainbat arlotan eskuratzea: esaterako, aukerei, integrazioari, jasaten dabena trauari eta parte-hartzeari jagokenez.

Landa Eremuko Emakumeen Nazinoarteko Eguna 2008. urtean ospatu zan lehenengo aldiz. Aurreko urtean, Nazio Batuen Batzar Nagusiak aintzat hartu eban zein funtsezko zeregina daukien landa eremuko emakumeek, baita emakume indigenek be, nekazaritza-eraren eta landa eremuaren garapena sustatzeko, elikagaien segurtasuna hobetzeko eta landa eremuko pobrezia kentzeko. Era berean, azaldu eban ingurune egoki bat sortu behar dala euren egoera hobetzeko, eta kontuan hartu behar dirala euren beharrezan, lehenetsunak eta ekarpenak. Aldarrikatu eban, beste alde batetik, emakumeon



Lurrari loturiko ema

Carmen Zubiaur beti bizi izan da bere etxean, Aresti baserrian, Derion. Ortua lantzen eben bertan, eta animaliak eukiezan. "Guk barazkiak zein esnea saldu doguz etxerik etxe. Gogoratzen dot Bilbora joaten ginala, trenez. Kargea, esnea, oso pisutsua zan, eta eskilarak gora eta behera ibili behar izaten ginan. Trenean, gorpuak eroaten ziran bagoian joaten ginan (kar, kar). Danetarik ikusi dogu bertan, ai ama!".

Denporearen poderioz, esnari kalidade-kontrol zorrotzagoak ezarri jakozan eta Carmen Bilbon saltzea debekau eutsien. Beraz, Derion hasi zan esnea banatzen. "Bertoko jenteak ezagutzen ninduen, beti astotxu eta burdiagaz joaten nintzalako. Egunean 200 litro baino gehiago saltzen neban. Eta esnerik sobran bagen duan, Beyenari saltzen geuntsan". Izan be, Carmenek goi mailako esnea ez eze, animalia ederrak be baeukazan. "Sasoirik onenetan, hamabi behi euki doguz etxean, eta, Zamudioko

"Gorpuak eroaten ziran bagoian joaten ginan Bilbora"

CARMEN ZUBIAUR | baserriar ohia

azokea martxan hasi zanean, sari batzuk irabazi genduzan".

Carmenen esanetan, "oso garai txarrak" bizi behar izan zituan. "Behar asko egiten genduan, baina diru gitxi irabazten genduan. Animaliek ortuak baino behar handiagoa ekarten dabe, animaliei egunero-egunero emon behar deutsezulako jaten. Gainera, bedarra moztu behar da, txertoak jarri... Dana dala, egunero-egunero egin behar da lan, Gabonetan, urtebetetze egunetan... Ez dago jairik. Azken urteetan jatsiteko makinak erosi genduzan, beharra errezteko, eta hareek sarritan garbitu behar izaten ziran, behar dan moduan ibilteko. Eta horrek be beharra ekarten eban". Horretan guztiak laguntzen eben: seme-alabek, suhinek,



kumeak



ahalduntze politikoa eta sozioekonomikoa bideratu behar dirala.

Bizkaiko Foru Aldundiaren datuen arabera, nekazaritza-ustiategiaren titularren erdiak emakumeak dira gure lurraldean; 5.425etik 2.256, hain zuzen be. Ustiategi profesionalen buru diran emakumeak be ugari dira: 816tik 328. Landa eremuko emakumeek gaitu beharreko oztopoen artean aitatu leitezak jaubetza-eskubideak edo laguntza ekonomikoak eskuratzeko trabak, euren beharra ikusgarri ez izatea, erabagi-esparruetan gizonek daukien eragina ez izatea, erantzukidetasunik eza eta ustiategiaren errentagarritasun eskasa.

Urrian, Landa Eremuko Emakumeen Nazinoarteko Eguna zala eta, argazki erakusketa bat antolatu zan Derioko Kultur Birikan, herriko emakume baserritarrei omenaldia egiteko. Erakusketan 70 argazki baino gehiago batu dira, antxinakoak eta oraingoak. Horrezaz gainera, emakume baserritarren arteko topaketea be egin zan eta bertan 60 emakume baino gehiago alkartu ziran; Carmen Zubiaur egon zan euren artean, eta bere bizitzaeren zati bat kontau euskun.

erranek... Gaur egun, bakotzak badauka bere beharra, baina baserritik kanpo, baserriko bizimodua oso gogorra dalako, Mari Carmenek, Carmenen alabak, dinoanez.

Carmenek 86 urte ditu eta arrebaz bizi da jaio zan etxean bertan. "Orain, jan, lo eta egon, besterik ez dot egiten, eta egia esan, askotan aspertu egiten naz. Ez dot telebista ikusteko gogorik, nahikoa daukat irratiaz. Neska batek laguntzen deust astean bitan Deriora joateko". Carmen ia itsututa dago eta hainbat ebakuntza egin deustez: aldaka bietan, eskuturretan... "Baina osorik nago eta burua ondo jabilt (kar, kar...)".

Carmen poz-pezik dabil Derion antolatu daben erakusketeagaz. "Oso ideia ona deritxagu erakusketeari. Maite Bolunburu zinegotziaren amak be banatzen eban esnea, eta betidanik ezagutzen dogu alkar. Guk hainbat gauza itxi doguz erakusketarako, batez be tresneria: hauspoak, jatsiteko makinak, atxurrak...".



Untzaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



BATXILERGOA

- Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizatua

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Ekolizpenaren Programazioa
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

txorierriko **BIZKALA** jala

AZAROAK 16 SONDIKA Tren geltoki ondoko karpan

17:45
Kalejira

18:00
Lehiaketa



19:45
Sari
Banaketa



20:00
Gazte-afaria



20:30 Talde lokalak:


Endemaño

Harry!! Lavanda

Artxoak

The Lasai

23:30



00:45





Azaroak 25

Emakumezkoen aurkako indarkeria deuseztatzeko, beharrezkoa da ulertzea ezin dela haren kontra egin gizonezkoiei eta emakumezkoiei lotutako ereduak sakon aldatzen ez badira. Eta horretarako, egunero egin behar da lan erakunde publikoetatik, enprestatatik, familietatik, komunikabideetatik eta eskolatik.

Gogoratu behar da emakumezkoen aurka indarkeria erabiltzeko moduak ere badaudela, oso zoliak direnak eta normalizatuta daudenak. Hala nola, sexuen araberako rolak ezartzea, neskatoak eta emakumeak bizitzaren arlo ezberdinetan ikusezin bihurtzea, edo emakumezkoiei sexu- eta ugaltze-eskubideak ukatzea.

Bestalde, belaualdi gazteek emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezber-

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ



dintasuna eta emakumezkoen aurkako indarkeria gainditu dituzten ustea badago. Baina, horren orde, errealitateak erakusten digu indarkeria matxistak gazteengan duen eragina oso kezagarria dela. Horregatik, aurrean, eta Azaroak 25aren kanpainaren barruan, udaletatik bereziki gazteekin lan egin nahi dugu, baina biztanle guztiei zuzenduta dauden ohiko ekintzak baztertu gabe, esate baterako elkarretaratzeak, hitzaldiak eta zine-forumak.

Mankomunitateak, bere aldetik, puntu lilak banatzeko kanpaina bat jarri du martxan. Puntu lilak bailarako tabernetan eta dendetan banatu dituzte, institutuan, anbulatorioetan, liburutegietan, kultur aretoetan... Kanpainak herritarrek emakumezkoen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunaren adierazpenik kruzeldena dena errefusatzeko du helburu: emakumezkoen kontrako indarkeria.

Berdintasunerako III. Foro Politikoa

Urriaren 5ean, hirugarren aldiz egin zen Berdintasunerako Eskualdeko Foro Politikoa Lezamako Kultur Aretoan. Ekin-tza Txorierriko politikariei egon zen zuzenduta eta 23 ordezkari hartu zuten

parte. Horiek ideiak trukatu zituzten berdintasunaren gainean, eta gizartea gai honekiko sentikor bihurtzeko beharrezko gainean, baita gizartea berdintasunaren inguruan hezteko beharri buruz ere.

Foroan parte-hartzea sustatzea helburu zuen dinamika erabili zen. Hala, terminoen glosario baten bidez kontzeptuak zehaztu ostean, hiru lan-mahai zehaztu ziren eta, besteak beste, gai hauek eduki zituzten hizpide: lana eta hezkuntza, lehenengo lan-mahaian; hirigintza, kirola eta kultura, bigarren lan-mahaian; eta gizarte-zerbitzuak eta osasuna, hirugarren lan-mahaian. Era berean, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari lotutako beste gai batzuk ere aztertu ziren, zeinak ekitaldian zehar irten baitziren.


Atera ziren ondorioen artean, hauek dira azpimarragarrienak: hezkuntza arloa osatzen duten eragile guztiekin lanean jarraitzeko beharra, kirola eta hirigintza gutxi landu diren esparruak direla eta haietan era eraginkorrago batean lan egin behar dela, eta bailararen beharrezko erantzuna ematen dieten mediku espezialisten beharra, hala nola ginekologoak.



Aire barriak gailurrean

LEZAMAKO GAILUR MENDI TALDEA

Mikel eta Asier ilusinoz eta gogoz agertu dira Aikor! aldizkariaren bulegoan genduan hitzordura. Lezamako Gailur mendi taldeko kideak dira eta taldeak hausnarketa-prozesu bati ekin deutso, bere etorkizuna finkatzeko. Taldea herrira hurbildu behar da barriro, horra hor atera daben ondorio nagusia. Zeregin horretara zuzenduko ditue euren ahaleginak.



t: Itxaso Marina / a: GMT

Gailur mendi taldea oso momentu berezian dago. Mendira joateko zaletasuna eban lagun talde batek osatu eban taldea orain 22 urte, alde batetik, zaletasun hori asetzeko eta, bestetik, afizino bera eben beste lezamarrak alkar hartzeko. Taldeak bere bilakaerea euki dau urte honeetan, bere bideari jarraitu deustso. Baina zuzendaritzan ibili diran lagunek denpora luzea egin dabe kargu horretan, eta ardurea beste batzuek hartzeko unea ailegau da. Gaur egun, behin-behineko batzorde kudeatzaile batek daroa taldearen jardurea, eta laster ekingo jako zuzendaritza batzorde barria aukeratzeko prozesuari.

“Taldeen ehun kide inguru gagoz”, azaldu deuskue Mikel Zaratek eta Asier Vicariok. Taldekideek hausnarketa sakona egin dabe Gailurrek hartu dauan norabidearen inguruan, eta oso kritikoak izan dira euren buruagaz. “Mendirako zaletasuna gazteen artean zabaltea da gure helburuetariko bat, eta, taldekideen profilari erreparaten badeutsagu, esan geinke horretan ez dogula asmau, berrogei urtetik gorakoak garalako guztiok”. Beraz, momentu honetan gatxa erizten deustie belaunaldi-erre-

*Herriko beste taldeakaz
egin behar dogu
lan, gazteakaz
egon behar gara,
tabernetan...”*

*“Gure gune naturala
Euskal Herria da; gure
lurraldean ez
dago zapaldu ez
dogun mendirik”*

leboa egoteari. Gatxa, baina ez ezinezkoa, eta euren indarrak zuzenduko dituen arloetariko bat izango da hori.

Gailur mendi taldea oso alkarte herrikoia izan zan hasikerako urteetan, eta haren ekimenak, guztiz arrakastatsuak. Baina denporak

aurrera egin ahala, joera bat nagusitu da bere barruan. “Herrikoak ez diran lagunek egin dabe gugaz bat, eta lezamarren parte-hartzea gitxitzen joan da. Gaur egun, taldeko kideen % 50 kanpokoak dira; eta beste % 50, herrikoak”. Azalpena erreza da. “Jentea beste talde batzuetatik etorri ohi da, normalean guk eskaintzen doguzan baldintzek eta aukerek erakarrita. Arazoa da baldintza eta aukera horreek ez deusteguzala lezamarrei be jakinarazo, ez deustegula esan herrian beste aukera bat daukiela euren denpora liberariko”. Hausnartze-prozesutik hau atera dabe ondorio: “Taldeko etorkizuna bermatu gura badogu, berriro herrira, Lezamarra, hurreratu behar dogu. Eskoleagaz eta herriko beste taldeakaz egin behar dogu lan, gazteakaz egin behar dogu, tabernetan...”

Herrikoiak

Alkartearen funtzionamentuari buruz aita-tu deuskue hilean bizpahiru urteera egiten ahalegintzen dirala. Txango luzeagoak be presatzen ditue Aste Santuari eta udeari begira. Irailean epe bat zabaltzen da taldekideek proposamenak egiteko eta ikasturtean zehar nora joatea gustauko litxakien esan daien. Halan, Alpeetan, Marokon, Granadan, Errioxan, Kanta-

UDA GOIENENKO OSTERA

GATIBU
ZAZPI KANTOIETAN
BILBO,
KAFE ANTZOKIA
Azaroaren 22an, barikua, 22:00etan
Sarrera: aurretik 12 €, bertan 15 €

BENITO LERTXUNDI
OROIMENAREN ORAINA
BASURI,
SOCIAL ANTZOKIA
Azaroaren 29an, barikua, 20:30ean
Sarrera: 18 €

Sarreraren salmenta:
k Sarreraren salmenta
www.kutsabank.es
BBK

Antolatzaileak:

Babesleak:

Laguntzaileak:

Mendizaleen arteko ospakizuna

Gailur mendi taldeak Gailur Eguna ospatu eban lehenengo aldiz irailaren 27an eta 28an. Alex Txikon mendizaleak berbaldua eskini eban eta ehun lagun inguru batu ziran bertan. Ibilpide bat be egin zan Lezamatik, eta plazan txixi-burruntzia prestau zan mendizale, lagun eta herritarrentzat. "Ospakizunak helburu batzuk euki ditu: zuzendaritzan egon diranen beharra jente-aurrean eskertzea, taldetik urte honeetan pasau diranakaz barriro batzea eta, batez be, lezamarrei jakinarazotea taldeak oraindino bizirik jarraitzen dauala".



Gailur Eguna hurrengo urteetan be egiteko asmoa dau mendi taldeak, eta lezamarren urteko egutegian hitzordu finkoa bihurtu daitela.

"Urtekeretara ezagutzen ez dogun jentea be etorten da. Gustaten jaku hori"

"Gure urtekerak herritar guztientzat dagoz zabalik, eta bakotxaren erritmoa errespetaten da"



brian, Pirinioetan... izan dira eta taldekide batzuek Aconcaguan eta Afrikako mendietan be izan dira. "Baina gure gune naturala Lezama, Euskal Herria da. Egia esateko, Euskal Herri osoan ez dago zapaldu ez dogun mendirik".

Gailur mendi taldeak antolatzen dituan urteerak oso gaxak diran ustea zabaldu da, eta alkarteak ideia hori kendu gura dau. "Askok bildurragaz begirutzen deuskue, baina gure urteerak herritar guztientzat dagoz zabalik, eta bakotxaren erritmoa errespetaten da. Dana dala, txango batek zaltasun teknikorik badauka, hori aurretiaz jakinazoten da, inor ustekabean ez harrapetako". Gainera, badakie helburu daben herriratze-prozesua arrakastatsua izatea gura badabe, urteera eta ekintza herrikiok antolatu behar dirala. "Eskoleagaz hasi gara beharrea, eta dagoeneko finkatuta daukaguz ikasturte honetarako urtekerak guztiak. Igaz be txangoak antolatu genduzan alkarregaz, eta asteburu oso bat egin genduan Gorbeia aterpe baten. Mendizaletasuna irakatsi gura deutsegu umeei, eta bide batez haren gurasoengana be ailegau".

Eta hasteko, ez dago aukera hoberik geure inguruetako bazterrek ezagutzea baino. "Azpiegitura gitxi behar da eta urteerak zeure neurira egin zeinkez: ordubetekoak, ordu bikoak...

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLERI KALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL. 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 1
48170 Zamudio
94 452 14 49



Oso aukera politak doguz geure inguruan: Uribeko GRa, Gaztelumendi, Ganguren, Lezamatik Goikoelexalderako ibilpidea...". Beste herrietako taldeek antolatzen dituen ekintzetan be parte hartzea gustaten jake. Izan be, hareekaz sinergiak lantzea da Gailur taldearen beste asmo bat. Kanpoko taldeakaz ez ezik, herriko alkarreakaz be bai. "Gureztat funtsezkoa da Lezamako beste taldeakaz kolaborazioak egitea eta hareek antolatzen dituen ekintzetan eta urtekeretan parte hartzea. Esate baterako,

Korrika egin zanean, lankidetzan ibili ginan herriko taldeakaz, eta, gure eretziz, oso polita eta positiboa izan da. Hori kontuan hartuta, zergaitik ez mendi inguruan be zerbait egitea alkarregaz?".

Alkarte zabala dala argi ixten dau askotan Lezamako okindegian errepikaten dan estanpeak. "Urtekerrea egiten dogun egunean, han biltzen gara goizeko 8:30ean. Urtekeretan izena aurretiaz emotea ez da beharrezkoa, eta askotan ezagutzen ez dogun jentea be etorten da. Ekintzearen barri, adibidez, egunkarietan euki dabelako. Gustaten jaku halakoak gertatzea".

Bizirik

Bazkideei taldeak eskaintzen deutsezan abantailen artean, prezio merkea azpimarratu leiteke. "Askok taldea erabiltzen dabe federazioan sartzeko. Horrezaz gainera, egiten doguzan urtekerera guztiek diru-laguntzea daukie eta ez da ezer ordaindu behar. Autoa eroaten dauanari be ordaintzen jaku gasolina. Beno, logikoa danez, bidaiaren zati bat ordaindu behar da asteburuko edo udako bidaiari jagokenez, baina hareek be oso merke urteten deuskue". Taldekideek materiala alokatzeko aukerea be eukiten dabe: kanpadendak, pioletak..., eta



liburuak be hartu ahal ditue maileguz, taldeak oso liburutegi zabala daukalako.

Talde bat aurrera eroateak eskatzen dituan beharra eta ardurea ezagutu barri ditue. "Urtekerak aurretiaz prestatu behar izaten dira, aurrekontuak egin, diru-laguntzak eskatu...". Baina taldeak bizirautea lortuko dabela uste dabe, euren armarik onena ipini dabelako mahai ganean: ilusinoak. Urte amaieran, taldearen egoera eta aukerak aztertzeke egingo dituen batzarrean ikusiko dabe nora eroaten gaituen ilusino horrek.



yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERAZIOA ELKARTEA
Nondik gertago - Donostia 4. 48170 Zaratza (Bizkaia) - Tel: 944 522 387 - info@paxi.koop - www.paxi.koop

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia katea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Nobedadeakaz datoz sanmartinak

Txokolate, Gozo eta Artisautza Azokea egongo da, mozorroak eta porrusalda lehiaketea



Trikizio taldea

a: Mari Carmen Noya eta Baga Biga

Jaiak azaroaren 8tik 11ra arte ospatuko ditue Zamudion, baina beti egiten daberen moduan, motorrak lehenago hasiko dira berotzen. Lagun probazaleak taldeak idi-probak antolatu ditue azaroaren 1erako, 2rako eta 4rako. Probak iluntzeko 8:30ean izango dira.

Zamudioko Azokea 27. aldiz egingo da azaroaren 2an eta 3an. Nobedadea ekarriko deusku, izan be haren barruan Txokolate, Gozo eta Artisautza Azokea egingo da lehendabiziko aldiz. Azokan 30 saltoki inguru ipiniko dira eta han Bizkaiko artisauek eta Euskal Herri oso-tik etorritako gozogileek jarriko ditue produktuak ikusgai. Txokolate, Gozo eta Artisautza Azokea zapatuan izango da. Gainera, egun horretan be saltxitxak eta garagardoa dastatzeko aukerea egongo da. Dastatze-ekitaldian batzen dan dirua gobernuz kanpoko erakunderen bati emongo deusie.

Zamudioko Azokearen egun nagusia domekan izango da. Ohikoa danez, Euskadiko Limusin Abeltzaren Txapelketea egingo da eta nekazaritza arloko produktuak ipiniko dira salgai, besteak beste, ezti, barazkiak, txakolina, gaztaia eta frutea. Orotara 85 saltoki jarriko dira. Goiza trikitilarietako eta txistularietako girotuko



dabe eta txakolina edateko edalontziak eta txartelak izango dira salgai.

San Martin jaietako pregoia Ruben Glerak, Guillermo Santosek eta Roberto Caballerok irakurriko dabe azaroaren 8an, barikuan. Azaldu deuskuen moduan, kirol arloan egin daberen ibilpideagaitik aukeratu daberen hirurak pregoia botetako. Halan, Titan Desert proban parte hartzeaz gainera, Ruben Bizkaiko txapelduna izan zan joan dan hilean Lezaman egin zan BTT Maratoian, master 50 kategorian. Guillermo Bizkaiko hirugarrena lotu da Errepideko Txirindularitza Lasterketan, master 40 kategorian, eta Roberto Caballero Field Target-eko munduko txapelduna izan zan igaz.

Txupina bota ostean, kanta poteoa egingo da herritik zehar. Gauari Mandoilek, Linton

*“Egunsentiaren kantak”
ikuskitunak Iparralde
eta Hegoaldeko kantak
ekarriko ditu*

Taun eta Trikitzio taldeek ipiniko deusie musika. Edozelan be, barikuko gaua berezia izango da, saiakera bat egingo dalako orain dala urte batzuk zamudioztarrek eben ohiturea berreskuratzeko: jaietarako mozorratzea.

Mortzilak

Zapatua goiz-goiz hasi eta batek daki noiz amaituko dan. Goizean mortzila txapelketea egongo da. Parte-hartzaileek frontoian bertan egin beharko ditue mortzilak eta, horretarako, antolatzaileek ipinitako arauetara jarraitu beharko deusie. Porrusalda lehiaketea –edo antzeko zerbait– be egongo da. Herri-bazkaria jaietan galdu dan ekintzea da eta porrusalda lehiaketearen bidez hari beste bultzada bat emon gura deusie, helburua bazkaltzeko orduan koadrilak frontoian batzea dalako. Baina argi itxi deuskue hori ez dala ohiko lehiaketea izango.

Arratsaldean, plazarik plaza ibiliko dira dantzariak eta herritarak, eta Guridi Big Band-ak eta Guridi Txiki Big Band-ak emonaldia eskinitako dabe. Gauean, Txapelpunk eta Kaotiko taldeak igongo dira eszenatokira. Dj Oihan Vegak goizalde animauko dau.

Domeka goizean eskolartekoen pelota partiduak egongo dira, kalejireta eta gaztetxoei zuzendutako lehiaketa baten finala. Arratsaldean *Egunsentiaren kantak* ikuskizuna aurkeztuko da. Pier Paul Berzaitzek martxan jarritako egitasmoa da, Iparralde eta Hegoaldeko kantak batzen dituan. Berzaitzagaz batera Erramun Martikorena, Estitxu Pinatxo eta Magali Zubillaga arituko dira eszenatokian.

Azaroaren 11n zaindariaren eguna da, eta jaietako azken eguna. Goizean mezea egongo da, eta mus eta briska txapelketak, arratsaldean.

Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



César López Guerra
Tel: 94 452 09 05
Móbil: 605 727 375

Ugaldeguren Ind., 3
26-1, partzela, 2. nabea
48170, ZAMUDIO-Bizkaia



Alaia

fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Talleri, 5
48170 Zamudio
94 685 05 85



Jaietan be,
euskaraz jaldi hadi
Zamudioko herrira



Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



zamudion
euskeraz?
hoba ez!

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión
Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



Azaroak 1, barikua. Idi-probak

–20:30: Idi-probak, Zamudioko Lagun-probazaleak antolatua.

Azaroak 2, zapatua.**Zamudioko XXVII. Azokea**

Zamudioko I. Artisautza, Txokolate eta Gozogintza Azokea.

Euskadiko Limusin abelgorrien XXI. Lehiaketea.

–10:30: Ganadua pisetea.

–12:00: Abere lehiaketea (emeak).

–12:30: Saltxitxak eta garagardoa dastatzea.

–17:00: Abere lehiaketea (arrak).

–20:30: Idi-probak, Zamudioko Lagun-probazaleak antolatua.

Azaroak 3, domeka.**Zamudioko XXVII. Azokea**

–10:00: Limusin abelgorrien, Zamudioko ganaduaren eta nekazaritza produktuen erakusketea.

–12:00: Txakolina eta gaztaia dastatzea. Azalpenak emongo dira.

–12:00: Euskadiko Limusin abelgorrien XXI. Txapelketako behi, zezen eta azienda onena aukeratzea.

–12:45: Txapelketaren sariak eta garaikurrak banatzea. Ostean, enkan-tea.

–13:30: Nekazaritza Lehiaketearen sariak eta garaikurrak banatzea.

Azaroak 4, barikua.**Idi-probak**

20:30: Idi-probak, Zamudioko Lagun-probazaleak antolatua.

SAN MARTIN JAIAK**Azaroak 8, barikua.****Mozorro Eguna**

–17:00: Frontenis txapelketaren finala, frontoian. Gazte Asanbladak antolatua.

–19:00: Txupina eta pregoia, Ruben Glera, Guillermo Santos eta Roberto Caballeroren eskutik. Ostean, kartel

Jai-egitaraua



lehiaketearen irabazleari saria emotea, gozokiak botetea eta kalejirea, Bertokok eta Gazte Elai txistu taldeak giro-tua.

–20:00: Kanta poteoa, herritik zehar.

–23:00: Kontzertuak: Mandoilek + Linton Taun + Triki-zio.

Azaroak 9, zapatua

–09:00: Mortzila saria-erakusketea, frontoian.

–11:00: Umeentzako jolasak, karrejuko karpan.

–11:00: Koadrilen arteko Porrusalda Lehiaketan izena emotea, frontoian.

–12:00: Talo tailerra, frontoian.

–14:00: Porrusaldea aurkeztea.

–14:30: Herri bazkaria, koadrilaka, frontoian.

–18:00: Dantzak, plazatik plazara. Bertokok, Gazte Elai txistu taldeak eta Hiru Bat dantza taldeak giro-tua.

–20:30: San Martin XXV. Kontzertua, karrejuko karpan: Guridi Txiki Big Band eta Guridi Big Band. Zamudioko Kamara Korallak antolatua.

–23:00: Kontzertuak: Txapel-punk + Kao-tiko + Dj Oihan Vega.

Azaroak 10, domeka

–11:00: Eskolartekoen pelota partiduak.

–12:00: Kalejirea, herritik zehar.

–12:30: "Zer gara gu, nor gara gu?" saioaren finala, frontoian

–18:00: *Eguntsentiaren kantak*: Erramun Martikorena, Estitxu Pinatxo, Magali Zubillaga eta Pier Paul Berzaitz. Karrejuko karpan.

Azaroak 11, astelehenean.**San Martin**

–12:00: Mezea. Ostean, kopaua eleizpean.

–16:00: Mus eta briska txapelketak, Adintsuen Etxean.

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Restaurante
JAN-KATETXEA

Restaurante
JAN-KATETXEA

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Torrelarragoiti ind. P-7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Telefona 94 452 35 26
Tel./Faxa 94 452 06 64



ARTEA & EROTA
JATETXEA

Ospatu gugaz
Sanmartinak

Dastatzeko menua:
30 € + beza

Kalidarezko lehengaiak
erabilten doguz

Arteaga AUZOA, 63
48170 Zamudio
94 452 10 30
restaurant@arteagerrota.com
www.arteagerrota.com

ama
taberna

leiz-adia lehendakari 7 (Zamudio)

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegi ondoan



OIZ FRUTA-DENDA

Oiz. 6
48170-ZAMUDIO

Susterrak Taberna

Mortzilak
barikuan efa zaparjuan



Zamarripa Enparantza, 2 944069027 48170 Zamudio



Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



Inaki 94 455 65 08 Jabi 94 452 14 31

Magalarte Txakolina

ARETXARTEA: FONDA ETXARTEA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

75 cl.
10,75% vol.



hotela
jattetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Nereak giltza eman dio Naiari

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak “Eman giltza” kanpainan hartu du parte azken urte biotan, eta proiektu horren berri emateko, besteak beste, iragarki bat egin da telebistarako. Nerea Romero derioztarra eta bere familia azaltzen dira iragarkian.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Nerea Derion jaio zen eta bertan eman du bizitza osoa. Gaur egun, Larrondoko etxebizitza berrietan bizi da bikotekide eta alabarekin. Azken horrek Naia du izena eta urte bi ditu. Neskatila ikasturte honetan hasi da Derioko herri ikastetxean, eta Nereak eskolaren bidez eduki zuen “Eman giltza” kanpainaren berri. “Ekainean bilera izan genuen eskolan. Hangoek esan ziguten lagungarria zela umeak euskaraz hezteko, batez ere euskaldunak ez ziren gurasoentzat. Eta webgunean sartzea erabaki nuen. Inkesta bat bete nuen, eta hala egin genuenen artean zozketa bat egin zuten. Niri bigarren saria suertatu zitzaidan, jostailu sorta bat, euskaraz jolasteko. Pozaren pozez hartu nuen, bai horixe!”

Hor ez da amaitu Nereak kanpainarekin izan duen harremana. Izan ere, geroago deitu zioten telebistarako iragarki batean parte hartzeko. “Oparia suertatu zitzaigunez, esan

ziguten ondo legokeela iragarkian geu ateratzea. Nik baldintza bakarra jarri nuen: oso urrun joan behar ez izatea. Eta Derion bertan grabatu genuen, Mankomunitatean. Eskatu zidaten alaba ere agertzea, baina nik ezetz esan nien. Zalantzak nituen, ez nekien proposa zen bi urteko umea telebistan ateratzea. Baina horren inguruan hausnartu eta gero, erabaki nuen euskara bultzatzeko iragarkia zela eta alaba agertzeak ez zuela garrantzirik. Eta azkenean, gu biok ez ezik, nire bikotekidea eta iloba ere batu ginenean eta ustezko familia oso bat osatu genuen telebistarako (kar, kar)”.

“Oro har, esperientzia polita izan zen. Arratsalde osoa eman genuen grabatzen, leku batetik, bestetik... Iragarkian segundo gutxi batzuetan baino ez gara agertzen, baina tira... (kar, kar)”. Iragarkia ETB2 katean ikusteko aukera izango dugu urrian eta azaroan. Nerea eta senideekin batera Aitzol Zubizarreta kazetaria eta Itziar Atienza aktorea ere agertzen

dira han. “Herrikoek, senideek eta lagunek txantxak egin dizkirate. Batzuek autografoak eta guzti eskatu dizkirate (kar, kar). Tokian tokiko hedabideetan agertu naiz eta jendeak zorionak eman dizkit kalean. Barregarria izan da”.

Adibide ona

Nereak euskararen transmisioa bermatzeko kanpainan hartu du parte, nahiz eta bera euskalduna ez izan. “Nik 38 urte ditut, eta gustatuko zitzaidakeen euskara eskolan ikasi izana, baina gurasoek beste erabaki bat hartu zuten garai hartan. Ikastetxean euskara izan nuen ikasgaitzat, baina horrek ez zidan ezertarako balio izan. Geroago euskaltegira joan nintzen eta ikastaro batzuk egin nituen, baina ez naiz batera trebea hizkuntzekin eta lanean hasi nintzenezan utzi egin behar izan nuen. Lanean ingelesa ikastera animatu ninduten eta ingeles ikastaro batzuk ere egin nituen, baina euskara bezain txarto eraman nuen. Eta orain, ez bata, ez bestea (kar, kar)”.

Euskara transmititzea

Duela urte bi, Alkarbide Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak "Eman giltza" kanpaina jarri zuen martxan. Proiektu horrek euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeak duen garrantzia nabarmentzea du helburu. Aurten, 39 udalerritan eta mankomunitate bitan (Txorierrikoa barne) zabalduko da eta Bizkaiko 10.000 familia inguruk jasoko dute etxean, postaz, kanpainari buruzko informazioa.

Egitasmoa 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei dago zuzenduta, eta horiei umearen ingurune hurbilean euskara sustatzeko aholkuak batzen dituen diptiko bana

bidaliko diete. Gainera, euren kezkek eta beldurrak uxatzeko prestatu den webgunearen berri ere izango dute. Webgunea hiru hizkuntzatan dago: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Horrezaz gain, adur-zapia, askari-poltsa, autoan jartzeko pegatina eta KU-KU liburuxka eta CDa ere banatuko zaizkie. Liburuxka horretan, besteak beste, abestiak, euskarazko oinarriko hitzak eta esamoldeak jaso dira, gurasoek umeeekin erabil ditzaten. Era berean, aurten, ikasturte hasierarekin batera, ETB2 telebista katean proiektua ezagutzera emateko eta transmisioa sustatzeko iragarkia ere ikusi ahal izango da.

"Esaldi batzuk dakizkit euskaraz eta horiek umearekin erabiltzen ditut"

"Hemengoak gara eta euskara zein gaztelera jakin behar ditugu, zelan ez!"

Dena dela, bere ustez, euskalduna ez denez, hain zuzen ere, pertsona aproposa da kanpainaren funtsa islatzeko. "Guraso euskaldunek bermatuko dute hizkuntzaren transmisioa, baina agian erdaldun batzuek ez dute egingo". Eta berak argi du euskara bultzatuko duela. "Esaldi batzuk dakizkit euskaraz eta horiek umearekin erabiltzen ditut, eta gauero ipuinak euskaraz, ahal dudan moduan, irakurtzen dizkio. Berak adi-adi entzunten dit eta oraindik ez dit zuzentzen; beraz, ni pozik (kar, kar)". Gainera, Nereak Naia euskaraz hitz egitera animatzen du izeko eta lehengusina euskaldunekin dagoenean.

"Hemengoak gara eta euskara zein gaztelera jakin behar ditugu, zelan ez! Nik euskara eskolan ikasteko aukera eman nahi diot alabari. Han euskara ikasiko du, eta nirekin eta aitarekin gazteleraz egingo du. Hizkuntza biak menderatuko ditu". Beste guraso batzuk ez datoz bat Nerearekin, eta D eredu gaitzesten dute. "D eredu ez aukeratzea atzerapausoa da. Eredu erabat euskaldunak bermatzen du ikasleek euskara ikasten dutela, eta gainera ahalegin handirik egin gabe, txikiek azkar ikasten baitute. Euskara aukeratzeak ez du inondik inora esan nahi gaztelaniari uko egiten diozunik. Nire ustez, hizkuntza bakar bat ikasteko aukera eman beharrean, D ereduak hizkuntza bi jakiteko aukera ematen die neska-mutilei".

Euskara eskolari dago lotuta, eta ume batzuek bertan baino ez dute euskaraz egiten. Derioztarrek ez du hori Naiari gertatzea nahi, eta baikor agertzen da euskararen etorkizunari buruz galdetu diogunean. "Nire adineko askok ez genuen eskolan euskara ikasi, eta batzuek jakin barik jarraitzen dugu; nire alabaren adinekoek, aldiz, jakin badakite euskara eta ondorengoek ere jakingo dute. Hurrengo belaunaldirako ziurren guztiak izango dira gai euskaraz egiteko". Euskaraz egiteko gai izateak ez du esan nahi geure hizkuntza erabiliiko denik, eta ezagutzaren eta erabileraren arteko dagoen desoreka da dituaquak kezkatzen dituen. Hala ere, lehenengo urratsa da, behintzat, eta Nereak aurrerapausoa eman du. Berak giltza eman dio Naiari neskatila euskalduna izateko.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAYARITZA
Nerea Pedrosa Glez. 517
COOP. GURASOEN ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

R P A
MAYORISTAS INFORMÁTICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

BAR RAFI
ESPEZIALTATEA PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Diz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613



Puntuari jarri zure autoa!

Negua sasoi txarra da gidariontzat. Izan ere, eguraldi kaskarrak (hotza, eurria, elurra) hainbat eragozpen ekartzen dizkigu autoa behar bezala gidatzeko. Horren haritik, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2008ko estatistiken arabera, hildakoak eragiten dituzten istripuen %18,4 eguraldi txarra dagoela gertatzen dira. Neguan gidatzen dugunean zenbait aholku hartu behar ditugu kontuan: eguraldi-iragarpenari adi egotea; segurtasun-distantziari eustea; kontu handiz gidatzea... Gainera, komenigarria da autoak izan ditzakeen matxurak aurreikustea eta hura tailerrean aztertzea. AIKOR! aldizkariak inguruko tailer batzuetara jo du eta gomendio batzuk jaso ditu.

"Neguari begira nik batez ere gurpilek zainduko nituzke", dio Joserra Muñoz Zamudio Motor tailerreko mekanikariak. "Gomendagarria izango litzateke udan udako pneumatikoak erabiltzea, eta neguan, negukoak, eta bezero batzuek horrela egiten dute. Hala ere, normalean gurpil berberak eramaten ditugu urte osoan zehar sasoiari erreparatu gabe". Adituen iritziz, neguko pneumatikoak udakoak baino askoz eraginkorragoak dira zazpi graduko tenperatura baino gutxiago dagoenean. Negukoak malguagoak eta bigunagoak dira eta duten marrazketa ere sakonagoa da; ondorioz, itsaspen, galgatze eta trakzio hobekak dituzte.

Garikoitz Urizarrek Astikene Motor tailerrean egiten du lan, eta beste aholku bat eman digu gurpilei dagokienez. "Pneumatikoek fabrikatzaileek gomendatzen duten presioa izan

behar dute". Dena dela, Garikoitzen ustez, beste kanpoko eragile batzuek ere badute eragina autoa neguan gidatzeko orduan. "Kontu handiz ibili behar da errepidea bustita dagoenean, ibilgailua era ezberdin batean ibiltzen delako, eta geuk ere ez dakigu zer gertatu daitekeen".

Pneumatikoak alde batera utzita, beste gauza batzuk ere zaindu behar dira: argiak; bateria; likidoen maila (ura, olioak...), batez ere izotzaren aurkakoak; galgak; suspentsioa; haizetako-garbigailuak... "Bateriek ez dute errendimendu bera kanpoan hotza egiten badu, eurentzako tenperatura ona 25 gradukoa baita. Gainera, hotz dagoenean, potentzia handiagoa behar dugu autoa martxan jartzeko", esan du Joserrak.

Katerik ez

Elur asko dagoenean batzuetan gurpilei kateak jarri behar dizkiegu; bestela, ezin da autoz ibili. Hala ere, Ford Goiriko José Luis Larreak ez du uste kateak funts-funtsezkoak direnik. "Arabian edo Nafarroako herri batean biziko bagina, agian gauzak ezberdinak izango lirateke eta ziur asko autoan kateak nahita nahiez eraman beharko genituzke. Hemen, Txorierrin, aldiz, oso gutxitan egiten du elurra. Eta gertatzen denean, normalean azkar-azkar garbitzen dituzte errepideak".

Beste arazo bat ohikoagoa da: gaua hotz-hotza izan, eta goizean, autoa hartu nahi dugunean, aurreko kristala izotzaz beteta dago. Zer egin ahal dugu? "Batzuek uste dute alkohola

Txorierrin, non?

–**Astikene**: Astikene ind., 28. pab., Derio. 94 645 17 81

–**Ford Goiri**: Izartza ind., Sondika. 94 453 25 15 / 94 453 39 31.

–**Juan Andrés**: Torrelarragoiti ind., 8-216 pab., Zamudio. 94 452 07 09.

–**Zamudio Motor**: Torrelarragoiti ind., 6. pab., 3. blokea, Zamudio. 94 452 16 16 / 94 452 16 24.

botatzea onuragarria dela, baina ni ez nago ados. Alkohola izotza baino beroago dago eta pitzadak sortu ahal ditu, kristalean markak ere bai. Nik karrakagailua erabiliko nuke izotza kentzeko", gomendatu digu Aitorrek, Talleres Juan Andres-eko mekanikariak.

Tamalez, gidari gehienok ez diegu normalean gomendioei jaramon handirik egiten, eta soilik behar-beharrezkoak diren azterketak egiten ditugu tailerrean, urtean egiten dugun kilometro-sortaren eta olioaren erabileraren arabera. Krisi garaian, askoz gutxiago. "Gauzak ez dira alde aurretik ikusten; gidariak arazoa gertatzen denean etortzen dira; bestela, ezer ez", aipatu du Joserrak. "Bai, gehienek dagozkien azterketak baino ez dituzte egiten", berretsi du José Luisek.

ZORIONAK!



Zorionak munduko izekorik onenari! Asko gutzut!



Zorionak amatxu! Eta mila esker zure maitasunagatik, laguntzagatik, pazientziagatik... ematen diguzun guztiagatik. Maite zaitugu!



Amamaren bihotza. Zorionak Igotz! Zure gurasoak, aititek, amamak, izekok eta osabak. Musu haundi bat.



BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor!lagunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera

Ez genekien hainbeste era zegoenik perretxikoak prestatzeko...

Eurak bakarrik prestatu ahal dituzu, okelarekin, pastarekin, arrautzekin, arrainarekin, saltsan, postrerako... Imajinario pixka bat eduki behar da, eta ausarta izan gauza berriak probatzeko.

Sarrian hartutako aleekin menu dotorea prestatu duzu. Plater asko daude, guk zelan egin ikasteko.

Beno, esan beharra dago, Sarrian batutako perretxikoez gainera, setakia eta cantarellusa ere erabiliko ditugula. Setakia Txinako perretxiko mota bat da eta aleak tenpura ipiniko ditugu. Cantarellus-entsalada ere prestatuko dugu. Perretxiko mota horiek Gironatik ekarri ditugu, gauden sasoiaren ez delako ohikoa cantarellusak gure inguruan egotea. Izan ere, entsalada on bat egiteko, nire ustez perretxiko mota hori erabili behar da...

Eta zelako errezetak egingo ditugu guk batutako aleekin?

Pate antzeko bat, kroketak, sopa bat, haragia onddoekin eta *foie*-arekin, eta, postrerako, mamizko pastela perretxikoekin.

Zein da zuri gehien gustatzen zaizun platera?

Haragia onddoekin eta *foie*-arekin, Pedro Ximenez erara. Gozo-gozo dago.

Oso sukaldari ona zara. Pentsatu duzu inoiz jatetxe bat ipintzea? Perretxikoak berezitasun dituena edo...

Jende askok galdetu dit horren inguruan. Baina perretxikotan ibiltzea zaletasun bat da, lagunekin eta etxean disfrutatzeko. Ez dut ikusten negozio bezala... Gainera, diruak ia gauza guztiak usteltzen ditu. Begira zer gertatzen ari den mendietan, eta orain, krisiarekin gero eta gehiago: jendeak kiloak eta kiloak hartzen ditu, gero saltzeko. Eta perretxikoak desageritzen ari dira. Normala da leku batzuetan arauak ipini behar izana.

Nondik zabilta zu perretxikotan?

“Ausarta izan behar da, gauza berriak probatu”

JUANAN DIAZ | perretxikoetan aditua

Perretxikoak protagonista eduki ditugu urrian. Hitzaldi bat izan dugu beren ezaugarriei buruz, Sarrian ibili gara perretxikotan, eta han batutako aleak prestatzen ikasi dugu. Ekintzetan Juanan Diez izan dugu gidari, berbalaguna izateaz gainera, perretxiko zale sutsua ere badena. Juanan sutegi artean harrapatu dugu.



HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta

Osuun-zentrua & Hortz-erutka
HORTZ-PLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
- HAZIARRAK BIZIEN BILBOAK

Dr. Arditza kalea, 11 - 1. ezk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urbe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 432 13 70

RPS: 184/10

 **OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5; behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

...sukaldean atzeko"

Zehatz-mehatz ez dizuet esango, gero zuek hara joateko, ezta? (Kar, kar). Perretxiko mota bakoitza habitat konkretu batean sortzen da: pagadi batean, pinudi batean, harizti batean edo landa batean. Ezinbestekoa da habitat horiek ezagutzea.

Zeintzuk dira zuri gehien gustatzen zaizkizun perretxikoak?

Amanita rubencesak, toxikotasuna badute ere, prestatzen direnean oso onak direnak, cantarellusak, karduziak... Baina batez ere ondoak eta ziza horiak.

Nondik edo norengandik datorki zu perretxikoetarako zaletasuna?

Amamarengandik. Osabari ere gustatzen zitzaizkion... Amamak perretxiko batzuk ezagutzen zituen eta oinarrikoa berearengandik ikasi nuen. Gero, nire kabuz joan izan naiz han eta hemen ikasten, irakurri ere asko irakurri dut. Amama ere bazen oso sukaldari ona eta errezeta batzuk bere eskutik ezagutu ditut. Santutxun Cantarellus elkartearen sortu zenean, hara joan nintzen sukaldari. Bertan ere asko ikasi nuen.

Sarriara atzo egindako irteeran ale gutxi batu dugu. Aurten ez da egon perretxiko askorik...



Eguraldi lehorra egon delako. Dena dela, Sarria oso leku aproposa da perretxikotan ibiltzeko, bertan lehen aipatu dizkizuedan lau habitat ematen direlako, eta, handik Baias ibaia pasatzen denez, hezetasuna dagoelako. Baina, nire ustez, perretxikoak zentzuz hartu behar dira, eta etxera soilik kontsumituko ditugun eraman. Ezin ditugu asko eta asko hartu, gero lagunei-eta oparitzeko.

Mendizalea ere bazara, ezta?

Bai. Niretzat inportanteena hau da: mendira joan eta buelta bat ematea. Perretxikoren bat hartzen baduzu, askoz hobeto, baina pagadi batetik ibiltze hutsa, adibidez, bada gozamina. Etxera indarrak berrituta itzultzen zara.

Sarriara joan baino lehen, jendarean eman duzun lehenengo hitzaldia eskaini zenigun perretxikoen inguruan zertxobait gehiago ezagutzeko. Interesgarria iruditu zitzaigun.

Zerbait arina egiten saiatu nintzen. Perretxikoen ezaugarriak ikusi genituen, zeintzuk diren habitat bakoitzean sortzen direnak, zelan hartu behar ditugun, zeintzuk diren Euskal Herriko perretxiko ez ezagunak, oker arruntenak...

Eta zuk zer deritzozu, Berbalagun proiektuaren barruan, hau bezalako ekintzak egiteari?

Zamudiora orain dela zazpi urte etorri nintzen arren, ni bilbotarra naiz eta berbalagun egitasmoan han hasi nintzen. Taberna batean lotzen ginen zerbait hartzeko, eta batzuetan zaila izaten zen asmatzea zeri buruz hitz egin behar genuen. Guk egin ditugun bezalako ekintzek aire freskoa dakarte eta oso interesgarriak dira. Dakiguna besteei helarazten diegu; eta ez dakiguna besteengandik ikasten dugu. Eta onena dena: hori guztia euskaraz egiten dugu.

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Arbolantxa kalea, 8 - 1. ezk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Mobila: 665 70 33 12

ESTILISTA
EVA ARDINES
Neska-Hiztulen Ileapaindegia
AmAr
Asteartea - Ostirala: 9etatik-19etara
Larunbata: 9etatik-14etara
Urbe Plaza, 1 - Behea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txandak)

LEANDRO
LANDETA
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**berba
lagun**
INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierrri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierrriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Etxegabetzeak geldiarazo

t/a: Itxaso Marina

Komunikabideetan ez dabe orain dala hilabete batzuk eben oihartzun bera, "alde batetik, banketxeen presinoagaitik, eta bestetik, etxegabetzeen lege barriak arazoa apurtxo bat leundu dau-lako, sustraitik ezer konpondu ez badau be", bere eretxia emon deusku Iñaki Eguskizaga Sondikako abogaduak. Baina etxegabetzeak egunero gertatzen dira. Gatxa da zifra zehatzak jakitea, datuak era batekoak edo besteoak diralako jotendaturriaren arabera. Adibidez, Podere Judizialaren Kontseju Nagusiak aurtengo ekainean jakinarazotakoaren arabera, igaz 101.034 utzarazpen sinatu ziran Estaduko epaitegietan. Hareetako 43.853 hipotekea ordaindu ahal ez izanagaitik izan ziran; 54.718, alokairua ordaindu ez izanagaitik; 1.909, arbitrajeko laudoengaitik; eta 549, familia-arazoengaitik.

"Hipotekea ordaindu ezingo dogula aurreikusten dogun momentuan joan behar gara aholkularitza bila"

2013. urteko lehenengo hiruhilekoan 19.468 utzarazpen egon ziran Estatuan.

Hipotekeari lotutako etxegabetzei jagokenez, Espainiako gobernuak azaldu dau igaz 75.375 utzarazpen egon zirala, garajeak eta landa-finkak, hareen artean; eta guztira 286.130 utzarazpen, 2006. urtetik 2012. urtera arte. Baina hipotekea ordaindu ez izanagaitik kaltetuen plataformetatik uste da zifra hori 400.000ra be

heldu leitekela. Gure autonomia erkidegoko zifrak zehaztea be ez da bat be erraza. Iñakik esan deusku bakarrik Bilbon zazpi kaleratze izaten dirala egunero. Erakundeek zifrak kontabilizeteko behar moduko tresnarik ez dabela erabili dabe atxakiatzat. Halanda be, Espainiako gobernuak esan eban Estadistikako Institutu Nazionala (EIN) 2013. urtean hasiko zala datu zehatzak argitaratzen, hiru hila-beterik behin. Baina EINetik jakinarazo deuskuenik, oraindik ez dakie informazioa noz kaleratu ahalko daben. Zifrak alde batera itxita, etxegabetzeak krisiaren ondoriorik krudelena dira, eta horretan bai ez dagoala zalantzarik.

Doan

Iñaki Eguskizagak hilabete bi emon ditu beharrean Bilboko Auzo Alkarteen Federazioagaz. Denpora gitxi izan da, baina nahikoa etxegabetzeen dramea



hurbiletik ezagutzeko. Erretirauta dago eta bere espezialidadea ez dan arren, bera lan-arloko abogadua dalako, baietz esan eutsan lagun bati honek laguntzea eskatu eutsanean. "Behar pilo bat eben momentu horretan. Federazinora jotzen dan jentea Bilbokoa ez ezik Bizkaiko beste herri batzuetakoa be bada. Batzuek euren etxeetatik bota dabez dagoeneko; eta beste batzuek etxegabetze-agindua jaso dabe. Federazinoan aholkularitza emoten jake doan eta bitartekaritza-zerbitzua be eskaintzen jake, ahal bada, banketxeagaz akordio batera ailegau daitezana". Iñakiren esanetan, Bilbokoa moduko alkarte batera joateko, ez da itxaron behar azken momentura arte edo hipotekearen kuota bat lehenengoz ordaindu ezin arte. "Hipotekea ordaindu ezin izango dogula aurreikusten dogun momentuan joan behar gara aholkularitza bila. Gainera, udal askok badabe abogaduen alkar-goagaz akordioa, aholkularitza doan emon daien". Bilboko Auzo Alkarteen Federazinoan Erronda kalean dago, 25 zenbakian, eta martitzenetan dago zabalik, 18:00etatik 20:00etara. Inportantea da etxegabetzeari aurre egiteko neurriak ahalik eta lasterren hartzea, "lege barriak, hainbat baldintza beteten badira, etxegabetze-prozesua geldiarazoteko aukerea emoten dauelako. Urte bitan bada be. Denpora hori pasau ostean, personaren egoerea hobetzen ez bada, edo akordio-rik lortzen ez bada, prozesua barrero ipintzen da martxan". Federazinoagaz beharrean emon dauan denporan etxegabetze batzuk geldiarazotea lortu dabe. "Poz handia sentiduten da. Jentea etsita dago benetan".

Larregizko klausulak

Hasieran aitatu dan moduan, etxegabetzeen lege barriak itxuraldatu egin dau arazoa eta baldintza zehatz batzuetan dagozan gitxi batzuen egoerea bigundu dau. Esate baterako, familia ugariena,

Erromatarren garaikoak

Ordainean emotea erromatarren garaian sortu zan figura juridiko bat da. Zordunak zorra ordaindu ezin baeban, hartzekodunak esklabotzat hartu ahal eban, eta bere behar fisikoa erabili, ahalik eta zorra ordaintzen zan arte. Zordunak ura eta urun apur bat jasoten zituan bere beharren ordez. Egoera ankerra zan, eta, herritarren presinoa zala-eta, zuzenbide erromatarrak arau hau baliobakotu eta ordainean emotearen figura sortu eban. Zordunak bere ondarena emoten eutsien hartzekodunari eta halan kentzen eban zorra.

Eskratzea be erromatarren garaian erabilten zan tresna bat da. Legearen arabera, baegoan aukerea

lukurreru baten etxearen aurrean, hiru egunean, ipini eta hari irainak eta botateko. Eztabaida handiak sortu dira eskratzeen inguruan. "Nire ustez, bidezkoa da herritarrok figura hori erabiltea. Hareek komunikabideak erabilten ditue beren presinoa egiteko eta gura dabena esateko, baita jentea bere etxetik botateko legeak ezarteko be; eta guk be eskubidea dogu pankarta bat hartu eta gure egoerea salatzeke, hareen lantokiaren aurrean zein hareen etxearen aurrean. Iraindu barik. Epai ez-bardinak egon dira eskratzeen gainean, aldekoak eta kontrakoak. Nik uste dot adierazpen askatasunaren modu bat dala".

guraso bakarreko familia edo haren kideen artean elbarritu bat dagoan familia, adibide batzuk ipintearren. Edozelan be, eta lege horrek ezarten dituan baldintzarik bete ez arren, etxegabetze bat geldiarazo ahal da, banketxeagaz egindako kontratuan larregizko klausulak badagoz. Gutariko askok ez dakigu larregizko klausulak sinatu doguzala. Zeintzuk dira?

"Kuota bakar bat ordaintzen ez bada, banketxeak kontratua apurtu daike eta etxegabetzea eskatu, adibidez. Ba, hori larregizko klausula bat da. Beste batzuk honeek dira: interesak % 5etik % 25era arte igotea, atzerapena egon dalako kuotak ordaintzeko; ordaindu beharreko interesak portzentaje konkretu bat baino bajuagoak izan ahal ez izatea, Euriborren arabera halan izan beharko litzatekeen arren... Bestalde, PAH alkarteak lortu dau epaitegi batek kontratuan ordainean emotea ez agertzea larregizko klausula-

tzat jotzea. Baina, jakina, gero ñabardurak dagoz, legeak dinoalako ordainean emotea ezartzearen beharra bakarrik kasu larrietan dagoala..."

Ordainean emotea

Iñakik gatz ikusten dau arazoa konpontzea, alde guztiek adierazo behar dabe borondate ona. Bere ustez, ordainean emotea hipoteka-mailegu guztietan egon beharreko arau bat izan beharko litzateke. "Hipoteka bat emoten danean, banketxeak oso ondo daki zein dan zordunaren egoera. Beraz, berak be onartu beharko leuke jagokon erantzukizuna. Bestalde, zorra dauanari nasaitasuna ekarten deutso, bere etxebizitza ordainean emon ostean, banketxeagaz eban zorra kendu dauala jakiteak. Gainera, pentsau behar dogu persona horrek hipotekearen zati bat be ordaindu dauala, eta, halanda guztiz be, banketxeari bere etxebizitza emongo deutsala..."



No-apaindegia
M^a Antonia Llodio
TAXI

Txostenko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Mitxine 8, behe - 48150 - Sondika (gettokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.zalozain.com



Hanka robotikoa

t: *Xabier Díaz, BTEkeko zuzendaria*

Google bilatzailean *robotic leg* idaztea baino ez duzue, hanka robotikoa, alegia. Gizon bat eskailerak jaisten ikusiko duzue, malda bat igotzen edo kaletik paseatzen. Ez da beste munduko gauza... bere hanka robotikoagatik ez balitz. Honek ere ez du beste munduko gauza ematen, izan ere, filmetan ohikoa da piratak egurrezko hanka bat dutela agertzea, eta ezagutzen den lehenengo protesia egurrezko behatz bat da, Kristoa urreko 3000. urtekoa dena. Urteetan egon diren hobekuntzak materialetan, artikulazioetan eta lotzeko meto-

doetan izan dira... Zer da, orduan, egon den gabezia? Kontrola.

Aspalditik dabilta ikerlariak eta medikuak protesiak kontrolatzeko sistemak topatzen. Elektronika eta mikroprozesadoreen berrikuntzen bitartez joan dira apurka-apurka pausoak ematen, eta azken Chicagoko Errehabilitazioko Institutuan izan da.

Esan bezala, mikroprozesadoreak hasi ziren erabiltzen, beso, esku zein hanka artifizialak mugitzeko. Baina teknologia horietan, urruneko aginte-gailuetan edo nerbio-sistemari lotutako protesietan mugimendu bereziak edo gehiegizkoak be-

har ziren. *Targeted reinnervation* izeneko teknologia berriak galdutako gorputz-adarra mugitzeko erabiltzen ziren nerbio berberak erabiltzen ditu.

Muskuluak mugitzeko, gure nerbio-sistemak neurona berezi batzuk erabiltzen ditu, motoneuronak hain zuzen ere. Hauek muskuluei daude lotuta eta gure burmuinak, muskulu bat uzkuertzeko, hala egitea dagokion motoneuronaren bidez bidaltzen du seinale elektriko bat. Ikerlariak sentsoareak ipini dituzte neurona hauetan, zeinek informazioa hanka kontrolatzen duen sistemari, adibidez, ematen baitiote. Hala, hanka robotikoak mugitzeko agindua jaso egiten du, hori ulertzen du eta zein mugimendu egin behar duten esaten die artikulazioei.

Informazioa pasatu

Aurrerapauso itzela den arren, oraindik badago asko egiteko. Behar den moduan ibiltzeko, ez da nahikoa hankari aginduak bidaltzearekin; hankak dituen sentsoeren informazioa ere behar dugu, erabakiak ondo hartzeko. Esate baterako, laprast egiten dugunean, gure nerbio-sistemak informazioa behar du, ez jauzteko, zein mugimendu egin behar duen jakiteko. Beraz, sentsoareak jarri behar ditugu hanka zein beso robotikoetan, horiek informazioa gure nerbio-sistemari pasatzeko, erabakiak modu egoki eta azkar batean har ditzan. Pentsatu, bestela, eskuaren kasuan: arrautza bat hartzeko, ez da nahikoa atzamarrei agindua bidaltzearekin; arrautza hauteman behar dugu, osterantzean, apurtu egingo dugu.

Chicagoko institutuan ere badabilta *Sensory reinnervation* izeneko teknika garatzen, eta haien hurrengo proiektua teknika biak uztartzen dituen beso-esku robotiko bat izango da. Filmetan ohikoa dira *robocop*-ak eta *cyborg*-ak. Horietatik urrun bagaude ere, benetako beso, hanka eta esku robotikoetatik ez gaude hain urrun.

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISIA Elegabeko ordutegia

Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



Sabino Arana 1-3. SONDIKA

IRATXO
gozotegia



tarta personalizatua
trufak
bolak
pasafelak
pastak

Mikel Zarate, 2-3, Louja • Sondika, 48150 • 94 643 89 10

Kantinplora eta ezkila



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Kantinplora katalanetik datorkigun hitza da: *canta i plora* (llora). Hala deitzen zaio urontzi honi Coromines-en iritziz, ontziko likidoaren hotsak eta kantu edo negar-soinuek duten antzekotasunagatik. Ezkilak, aldiz, kanpandorreetan ikus

ditzakegu eskegita, leku jasoan, kanpai hotsa urrunetik ere entzun dadin.

Katalanek estatu izan gura dute, egun bateko Diada betiko Diada bihurtuz. Baina zergatik mobilizatu dira orain eta ez orain hamar urte, esate baterako? Ba, kantinploragatik. Kantinplorak, beterik badago, ez du zaratarik egiten. Madrileko

botereak ur barik laga du kantinplora eta, jakina, katalanak oihuka eta aldarrika hasi dira: “Ez begira Madrili, geu gara nahiko herri”, ezen “canta i plora” hutsik edo erdi hutsik uzterakoan egiten baitu kantinplorak.

Euskal Herria, bestalde, elizaz nahiz ermitaz beterik dago. Sarri-sarri entzun daitezke kanpai deiak:

“Gure eliz-dorreko
ezkila zaharrak
batasunera ditu
deitzen herritarrak”.

Zoritxarrez, batasuna gozoagoa da, dirudienez, kanpotarrekin egiten denean. 2013an ere erdal-botereak eskua luzatu dio euskal-botereari. Zein gizalditan konturatuko ote gara eskuak gainean ipiniz gero arranari ito egiten zaiola doinua. Egin ezazu frogara, irakurle: hartu esku bien artean zintzarria –edo esku txikiak badi-tuzu txilina– eta eragiozu hona-hara. Kanpai horren hotsa gortu egiten da. Ostera, eskuak gainetik kendurik, aske astintzen baduzu, hots zolia aterako du, bizi-bizi entzungo duzu ezkilaren mihia.

Gure alderdi politikoak politikoen alderdi bihurtu ez daitezten, herriz herri jo behar dira batasunerako ezkilak, kanpai-jotzaileei adar jotzaileak nagusitu ez dakizkien.

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

servicio de urgencias
24h

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 patata
- 300 g perretxiko
- Kipula bat
- Piper berde bat
- Berakatz atal bi
- Koilarakada bi urin
- Edalontzi bat esne
- Ura
- Oliba-orioa
- Gatza
- Perejil txikitua

Saltsea egiteko:

- Berakatz atal bi
- 200 g perretxiko
- Edalontzi bat ardao zuri
- Edalontzi bat esnegain
- Oliba-orioa
- Gatza

Prestetako area:

Lehenengo eta behin, saltsea egingo dogu. Berakatzak zuritu eta xerratan eba-

Perretxikoz betetako patatak



Brokolia oilaskoagaz

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Oilasko-bularki bi
- 500 g brokoli
- Soja-saltsea
- 400 g tailarin

Prestetako area:

Brokolia 10 minutuan egosiko dogu. Ura xukatuko dogu. Oilasko-bularkiak zerrendatan ebagiko doguz eta salteauko doguz. Gorritzen hasten diranean brokolia gehituko dogu. Bitartean, tailarinak egosiko doguz. Eginda dagozanean, brokoliagaz eta oilaskoagaz batera serbiduko doguz. Gaietik soja-saltsea botako dogu.



giko doguz. Kazuela baten, orio apur bat ipini eta han gorrituko doguz. Perretxikoak garbitu eta honeek be xerratan ebagiko doguz. Berakatzakaz batera ipiniko doguz kazuelan, eta apur bat sueztituko doguz. Ardaoa, esnegaina eta gatza botako doguz eta 20 minutuan eukiko dogu irakiten. Saltsea irabiauko dogu.

Patatak egosiko doguz eta hotzitzen diranean, erditik ebagi eta mamina aterako dogu. Gordeko doguz. Betegarria egiteko, perretxikoak, berakatzak, kipulea eta piperra txikitu eta zartagin baten sueztituko doguz. Eginda dagozanean, pataten mamina gehitu eta ondo nahastuko dogu. Patatak beteko doguz. Bexamela egingo dogu eta pataten gainean botako dogu. Labara sartu eta minutu bitan gainerreko doguz.

Azpil baten, saltsa ipiniko dogu eta haren gainean, patatak. Perejil txikitua botako dogu.



Garmendia ardoak

Pinea jof., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak


Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75


BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea



Hileko galdera

Zergatik hazten dira azazkalak?



Azazkalak etengabe hazten dira, euren higadura orekatzeko. Gizakiok hainbat gauza egiten ditugu eskuak eta atzamarrak erabiltza: ordenagailuan idatzi, harrikoa egin... Gizaki primitiboentzat ere funtsezkoak ziren: ehizatzea, erasotzea, defendatzea... Azazkalek atzamarrak babestea dute helburu eta haziko ez balira, denboraren poderioz atzamarrak desagertu egingo liriateke. Gure gorputzak erabilerak ekartzen duen higadura orekatzeko du eta atzamarraren azazkalak zentimetro bat hazten dira hiru hilabeteko. Oinetan ere bada go higadura, baina txikiagoa da. Beraz, behatzen azazkalak zentimetro bat hazten dira bederatzi hilabeteko.

Sudokua

9		6				2		
2	3	5	4	8				
				7				
	6		8	4		7		
		4		9	5			2
			7	2			8	
								3
	2			5				9
		8						

7	2	6	4	1	9	8	5	3
9	1	4	6	2	7	3	5	8
4	1	9	2	6	7	8	5	3
1	9	3	7	2	6	5	8	4
7	8	4	1	9	5	3	6	2
5	6	2	8	4	3	7	9	1
8	4	1	6	7	2	9	3	5
2	3	5	4	8	9	1	7	6
9	7	6	5	3	1	2	4	8

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitez Trippya, Deriora

Behoko Kalea Baxo
DERIO

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zainduzu BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kripmasajeta

clinica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txovierri etorbidea, 9 - Longa | Arteaga enakina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 957 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Azokak

Sondika

- > Eskulangintza, Abeltzaintza eta Nekazaritza Azoka. Azaroaren 10ean, 10:00etatik aurrera.

Erakusketak

Derio

- > VI. Mikologia-erakusketa eta dastatzea. Untza mendi taldeak antolatua.
- > "Fin de siglo" serigrafiak. Azaroaren 5etik abenduaren 9ra, Kultur Birikan.
- > "Burdin hesia, 75 urte ondoren", Luis de la Fuenteren eskutik. Azaroaren 6tik 29ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > "Gerra zibilaren alderdiak Derion (1936-1937)", Aitor Miñambresen eskutik. Azaroaren 14an, 19:00etan, Kultur Birikan.

Ikastaroak

Zamudio

- > Umeengan enpatia eta tolerantzia sustatzea. Azaroaren 16an, 11:30ean, liburutegian.
- > Autodefentsa. Azaroaren 30ean, 09:00etan, Agirre gelan.

Larrabetzu

- > Bizkarrezurra zaintzea, azaroaren 16an. Izena ematea: azaroaren 8ra arte, Anguleri kultur etxean.
- > Internet, oinarritzko ikastaroa. Izena ematea: azaroaren 12ra arte, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Sondika

- > Txotxongiloak: *Ipuinen Iapurra*, Toni La Salen eskutik. Azaroaren 8an, 18:00etan, liburutegian.

Derio

- > *The full monty*, Txineska antzerki elkarrearen eskutik. Azaroaren 15ean, 20:30ean, Gurea Aretoan.
- > Santa Zezilia. Ipar-Alde abesbatzaren kontzertua. Azaroaren 23an, 19:00etan, San Isidro elizan.

Zamudio

- > Santa Zezilia. Zamudioko Kamara Koralareren emanaldia. Azaroaren 24an, 11:00etan, San Martin elizan.
- > Kontu kontalaria. Azaroaren 30ean, 11:30ean, liburutegian.

Irteerak

Sondika

- > Arralde-Barazar. Azaroaren 17an, Gorronda Gane gurasoen elkarrearte antolatua. Izena ematea: azaroaren 14ra arte, liburutegian.

Derio

- > Perretxikotara. Azaroaren 2an, 08:00etan, udaletxe aurrean. Untza mendi taldeak antolatua.

Zamudio

- > Errioxa. Azaroaren 17an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Senda Basatxi (Gorbeia). Azaroaren 17an, 08:30ean, Herriko plazan. Lezama Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n, Izartza auzoan. 12:30etik aurrera, meza, dantzariak eta kalejira.

Lehiaketak

Larrabetzu

- > Gabonetako postalen lehiaketan parte hartzeko epea: azaroaren 18tik 22ra.
- > Karta txapelketa. Azaroaren 30ean, Gure Etxean.

Bestelakoak

Sondika

- > Berdintasun Plana azaltzea. Azaroaren 20an, 19:00etan, Kultur Etxean.

Derio

- > Tokiko Agenda 21. Azaroaren 20an, 19:30ean, Kultur Birikan.
- DerioKOMunikazioak antolatua.

Zamudio

- > Txarriboda. Azaroaren 8an, Adintsuen Etxean. Lagunandre elkarrearte antolatua.

Larrabetzu

- > Azalerako ipuinak. Azaroaren 8an.
- > Umeentzako Gabonetako programan izena ematea: azaroaren 25ean eta 29an.

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUNKO OMELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungialde etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

harategia - urdaltegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gurbi-ikuziak, urrikorren
Azaroko konsumitzaiek
Mantentze gurbi-ikuziak
Balegak eta lokabak
Otroa amaierako garbiketa
Ikusizkoak
Zabor bilketak

Besalde Plaza, 1 - B* Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

t i k
t a k

EGUNEKO MENUA

lehienengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Nire Autoocasion **MA**

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA

Unisex ileapaindegia
Estetika
Orduetegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

Miresten gaitu, begirunea diogulako



ITP konpainia globala da, produktuaren bizitza-ziklo osoan zehar duen teknologia eta ingurumenarekiko begiruneagatik aerogintza eta industria motoreen merkatuan aitzindaria. ITPn kudeaketaren bikaintasunaren aldeko apostu sendoa egin dugu bai eta gure bezeroei begirako etengabeko lotura garatu ere, konpainiari eta interes-talde orori balioa emanez.



talentuaren indarra

www.itp.es



BARDINEAN EUSKERAZ

¿Necesitas estos servicios en euskera?

Monitores/as de tiempo libre
Profesores/as de clases particulares
Monitores/as de deporte
Cuidadores/as de personas mayores
Cuidadores/as de niños/as
Dependientes/as para comercios
Camareros/as

**¡Ven a la
Mancomunidad!**

Lan egiteko euskaldunak behar dituzu?

Aisialdirako begiraleak
Klase partikularren irakasleak
Kirol begiraleak
Nagusien zaintzaileak
Umeen zaintzaileak
Dendariak
Tabernariak

**Lan bila
zabiltza?**

**Zatoz
Mankomunitatera!**



Txorierriko Mankomunitatea: Txorierri et., 9 behea-DERIO-94.454.03.50

